



HASTEAREN DIRA ESKUALDEAN SAN PEDRO JAIAK

Leaburun eta Urkizun etzi hasiko dituzte ekitaldiak eta Asteasun astelehenean hasiko dira, Haurren Egunarekin 2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-06-24**

VIII. URTEA 2.035. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Joseba Rojok bota zuen Jaiaren hasierako suziria. Ondoren erraldoiek hartu zuten protagonismoa. I. TERRADILLOS

SUAREN BEROAN HASI DIRA SANJOANAK

TOLOSA Gaur ospatuko dute San Joan eguna; usadio handiko ekitaldiak agertzen dira Jaietako egitarauan 4-5

Landa auzoetako hirugarren gida turistikoa, kalean

ALDABA Bedaio eta Urkizuren bideari jarraiki, Txindoki parean duen auzoak ere badu berea 6

Eguraldiak ez du lagundu txirrindularitza proba gogorrean

KIROLA 7.519 txirrindulari iritsi ziren Quebrantahuesos-en helmugara 7

BONBERENEA KOLEKTIBOA

«Izan nahi duguna errespetatzeko eskatzen diogu Udalari»

TOLOSA Laskorain Goikoa proiektua itxi aurretik euren hitza argi eta garbi utzi nahi dute 8

“Xirimiri”

Errementari kalea, 40
20400 Tolosa

Txokolategia

Telef. 943 67 52 23

**GORA
SANJUAN!**

San Pedrok zabaltzear ditu festetako ateak

Gizartea » Etzi hasiko dira Leaburuko eta Urkizuko jaiak; egun batzuk beranduago berriz, ekingo diete jaiak Asteasu eta Larraitzen.

ERREDAKZIOA

Sanjoanok iritsi besterik egin ez badira ere, jada eskualdeko zenbait herritan, ate joka dira San Pedroak ere. Asteasu, Leaburu, Urkizu eta Larraitzen dute patroisantu hau, eta bere egunaren inguruan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Lehendabizikoak, jaiak hasiera ematen, Leaburu eta Urkizukoak izango dira. Hauek etzi bertan ekingo baitiete ekitaldiei. Bietan ere, 12:00etan botako dute gainera,

festen hasiera iragartzen duen su-ziria.

Larunbatean, igandean eta datorren asteartean izango dira ekitaldiak.

Asteasu berriz, bi egun beranduago hasiko dira San Pedroak ospatzen. Hilaren 28tik uztailaren 4ra, izango da zer eginik. Hala ere, tartean, atsedean egun batzuk hartuko dituzte. Azkenik, Abaltzisketako Larraitz auzoan, uztailaren 4a ospatuko dute.



Aurtengo Sanpedroetan ere herri-kirolak ez dira faltako; Asteasun eta Leaburun, lehia eta ikuskizuna batuko dira. n.u.

» SAN PEDRO JAIK HERRIZ HERRI

ASTEASU

Ekainak 28, astelehena HAURREN EGUNA

- **10:00.** Jaien hasiera haurren txupinazoarekin.
- **Ondoren.** Haurrentzako jolasak. Krosa eta marrazketa lehiaketa izango dira.
- **12:00-14:00.** Haur parkea.
- **14:00.** Haurren arteko bazkaria.
- **15:30-18:00.** Haur parkea.
- **18:00.** Haurrentzako emanaldia Eidabe taldearen eskutik. *Atxikistan (Kanpanolue)*.
- **20:30.** Sorginaren jaitziera. Txupinazia eta kalejira.
- **23:00.** Bertso saioa: Amets Arzallus, Sebastian Lizaso, Jon Maia, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre eta Maialen Lujanbiorekin. Gaijartzailer lanetan Unai Elizasu ariko da.
- **Ondoren.** Maialen eta Kristina.

Ekainak 29, asteartea SAN PEDRO EGUNA

- **10:00.** Diana.
- **11:00.** Meza nagusia.
- **Ondoren.** Elizmendin, hamaiketako eta dantza soka. Asteasu pilotako txapelketako finalak. Aurrebenjaminak: Oier Izagurre eta Lander Aizpuru eta benjaminak: Iker Elizegi eta Telmo Garmendia.
- **18:00.** Asteasu pilotako eskalariak, musika jaialdia plazan. Trikiti-

lari eta pandero jotzaileak. Asteasu musika ikasleen emanaldia, talde musikala (biolina, pianoa, esku soinua, perkusioa, klarineta eta ahotsa).

■ **19:00.** Herriko musikarien kalejira.

■ **23:00.** Kupela taldea.

Ekainak 30, asteazkena JUBILATUEN EGUNA

- **11:00.** Meza.
- **Ondoren.** Aitzondo elkarteak herriko jubilatuei eskaintzen dien hamaiketako.
- **13:00.** Herri kirolak. Aizkorarekin, Jesus Mari Mujika eta Joseba Otaegi lehiatuko dira. Harria jasotzen berriz, Izeta II eta Aimar Irigoien ariko dira.
- **14:30.** Jubilatuen bazkaria pilotalekuan. Trikitilariak: Zapre eta Zaharra. Bertsolariak: Telleria eta Zeberio.
- **15:00.** Herriko dantzarien emanaldia.
- **19:00.** Egan taldearekin erromeria.
- **22:30.** Egan taldearekin erromeria.

Uztailak 2, ostirala KOADRILEN EGUNA

- **14:30.** Koadrilen bazkaria.
- **16:00.** Gaztetxoaren goitiberak Elizmendin.

- **18:00.** Musika herriko kaleetan. Orkestra Itinerante (Txaranga elektrikoa).
- **21:30.** Herri afaria plazan.
- **Ondoren.** Trikujai Diskofesta.

Uztailak 3, larunbata

- **10:30.** Asteasu auzoaren arteko futbol torneo. Taldeak: Kalea, Elizmendi, Goibarra eta Moraleja berria. Mus txapelketa herrikoia (16 ute arte eta 16 urtetik aurrera). Txintxon txapelketa.
- **18:00.** Zezen txiki eta pony-ak ibiliko dira.
- **18:00.** Arkupeko pilota txapelketaren finala.
- **Ondoren.** Asteasu pala txapelketaren finala.
- **23:30.** Musika kontzertua: Inde Kitxen eta Esne Beltza.

Uztailak 4, igandea

- **11:00.** Pilota jaialdia. Esku pilota eskolako txapelketako finala. Alebinak: Ioritz Maios eta Julen Aizpuru. Kadeteak: Mujika eta Elustondo, Labaka eta Iruretagoienaren aurka. Jubeniletan, Urbieta eta Zinkunegi, Urbieta II eta Otaegiren kontra.
- **Ondoren.** Sagardo dastaketa plazan (sardinak eta txorixoarekin). Sagardotegi hauei esker: Aburuza, Etxeberria, Sarasola eta Zabala.
- **18:00.** Herri kirolak: Asteasu taldeen arteko lehia.
- **Ondoren.** Laket taldea.
- **23:00.** Laket taldearekin erromeria.

ABALTZISKETA

Uztailak 4, astelehena SAN PEDRO EGUNA LARRAITZEN

- **12:30.** Meza nagusia.
- **Ondoren.** Hamaiketako eta trikitilariak.
- **Arratsaldean.** Trikitixa iluntzera arte.

LEABURU

Ekainak 26, etzi

- **12:00.** Jaiak hasiera emateko, suziri jaurtiketa.
- **16:30.** Mus txapelketa Zazpi Bide elkartearen.
- **21:00.** Herri afaria pilotalekuan.
- **Afari bukaeran.** Asmakizun lehiaketa.
- **23:00.** Joseba eta Andoni trikitilariak.
- **01:00.** Era askotako musika.

Ekainak 27, igandea

- **11:00.** Meza San Pedro elizan.
- **12:30.** Herriko gaztetxoaren arteko pilota partidak.
- **18:30.** Herriko dantzarien emanaldia.
- **19:30.** Herri kirol jaialdia: Mieltxo Saralegi harri jasotzailea eta Mujika eta Txapartegi aizkolariak.
- **Ondoren.** Buruhandiak.

Ekainak 29, asteartea

- **11:00.** Meza nagusia San Pedro elizan.
- **Jarraian.** Ohiko hamaiketako Zazpi Bide elkartearen.
- **Ondoren.** Toka txapelketa.

■ **18:00.** Haur eta helduentzako jolasak.

- **Ondoren.** Buruhandiak eta txokolatada.
- **21:00.** Barrikotea herriko plazan. Bakoitzak etxetik eraman beharko du janaria.
- **Jarraian.** Kantu emanaldia Garazi Egiguren eta Garazi Esnaolaren eskutik.

URKIZU

Ekainak 26, etzi

- **12:00.** Suziri eta kanpai hotsekin festei hasiera emango zaie.
- **13:30.** Auzoko umeen bazkaria eta ume jolasak.
- **18:00.** Ate joka entzerkia aurkeztuko dute Txalo produktzioak-ekoek.
- **21:00.** Auzoko afaria bertsolari eta trikitilariak.

Ekainak 27, igandea

- **11:00.** Tortilla lehiaketa.
- **11:30.** Auzoko erabilera anitzeko gunearen inaugurazioa.
- **12:00.** Tortilla dastatzea eta Sagardo lehiaketa.
- **12:30.** Toka txapelketa.
- **18:00.** Ume jolasak eta txokolatada.
- **18:30.** Bolo lehiaketa.
- **Egun osoan zehar.** Urmeentzako puzgarriak eta trikitilariak izango dira.

Ekainak 29, asteartea SAN PEDRO EGUNA

- **11:00.** Meza nagusia eta ondoren hamaiketako.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Apartamentua.** Peñiscolan zazpi pertsonentzako egokitutako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean, balkoia, haize egokitua, igogailua, parking-a eta bi igerilekurekin. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak deitu dezala

ondorengo telefono zenbakira: 617 42 89 52

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako jatetxe batek, uztaila eta abuztuan lan egiteko zerbitzaria behar du. Interesatuak deitu 665 70 87 70ra.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliag banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

E Elkarrizketa

BONBERENEA KOLEKTIBOA



R. CALVO

«Eraikinarekin batera ilusioz betetako proiektua hilko dute»

Kultura » Azaroan bukatuko da Laskorain Goikoa proiektua ixteko irekitako 13 hilabeteko epea, eta Bonbereneakoei hitz egiteko garaia iritsi zaie.

REBEKA CALVO

Bonbereneako gazteak orain arte udal ordezkariekin hitz egiten ari-tu dira. San Esteban auzoko Las-korain Goikoa proiektuaren bai-tan euren etxea kinka larrian ikusi dute eta horregatik hasi ziren uda-letxearekin negoziatzeko. Orain or-dea, «Udalaren benetako asmoak» zeintzuk diren ikusi dute, eta eu-ren etxea defendatzen jarraitzeko hainbat ekimen abiarazi dituzte: atxikimenduak biltzen hasi dira, kalejira bat egingo dute...

Azken egunetan Bonberenea Sutanen kartelak ikusi ahal izan ditugu herriko kaleetan eta panfletoak ere buzoneatu dituzue, zer dela eta?

Azken hiru edo lau urtetan hainbat elkarrizketa izan ditugu Udal ordezkariekin, eta gu beti saiatu gara historia ahal den era hoberean eramatean, zerbaitetara iritsi ahal izateko hitz egin. Udaletxeak ere, orain dela urte bete arte, beti esan izan du hitz egiteko prest ze-goela, konpromisoak hartuko zi-tuela... Baina iaazko azaroaren 22an edo, 140.000 euro onartu zituzten 13 hilabetetan hemengo plana -Laskorain Goikoa- ixteko.

Zuei, negoziaketak prozesu horretan, ezer esan gabe, alegia.

Guk beti esan izan diogu udal-txeari Bonberoen inguruko edozein informazio atera behar bazuen, guri aurrez abisatzeko zer aterako

zen. Lau urte hauetan lauzpabost artikulua atera dituzte, honen ingu-ruan gauza asko esan dituzte... eta gu beti isilik egon gara. Guk asko-tan abisatu izan diegu hitz egiten jarraitzeko plan hau ez zitzaigula gustatzen. Beti jarri dizkigute ai-tzakia, gainera; idazkariak infor-mazioa inori esan gabe pasa duela, informazio batzuk publikoak dire-nez kazetariak hartu eta publikatu egiten dituzte...

Inflexio puntua izan zen azaro-koa, beraz.

Pentsa, egunkaria hartu eta he-mengo plana ixteko 140.000 euro-ko proiektua onartu dutela irakur-tzen duzu. Azalpenak eskatu eta lasai egoteko esaten digute, gaine-ra, plana 25 urtetara dela eta beste aitzaki batzuk erabiliz. Lasai ego-teko! Guk iaazko apirillean udale-txearekin egindako bileran eraba-ki sendo bat hartu genuela esange-nien eta! Guk esan geniena da etxea handitzen genuela, horren aurrean zein jarrera hartuko zuten jakin nahi genuela eta etxea handi-tuta hurrengo pausoa etxea bertan geratzea zela. Alkateak orduan, baiezkoa eman zigun, hau da, etxea handitzeko, nahiz eta han zeuden bi zinegotzik momentuan bertan esan zuten, ezetz, handi-tzea ez zela ona, arazoak egongo zirela... Gu ez gara bereaiek bezala-koak eta ikusita beraiek euren kon-tuekin nola ibiltzen diren, argi esan

genien, guk erabaki bat hartu ge-nuela eta gustatu ala ez aurrera egingo genuela.

Plana firmatua, hala ere, urteak pasako dira proiektua egiten hasi arte, ezta?

Seguruena eta guk borroka hau irabazteko aukera ikusten dugue-nez, jada mugitzen hastea erabaki dugu. Guk badakigu zein den alka-tearen asmoa, eta da, 2011ko hau-teskundetan hemengo plana itxi-ta utzi eta hurrengo hauteskunde-etarako hemengo etxebizitzak saldu. Kontua ez da gu kalean utzi-ko gaituztela, baizik eta gure hitza ez dela errespetatzen. Errespetu falta asko ikusi ditugu, nahi dutena egin dute. Guk noski, hausnarketa bat izan dugu eta etxeok ikusi duguna da etxe hau mantentzen ez bada, bukatu dela. Izan ere, etxe honetako inork ez dauka gogorik proiektuarekin jarraitzeko etxea mantentzen ez bada. Guk oso argi genuen hemengo gatazka uda-

letxeak nahi zuen momentuan ha-siko zela, eta horrela izan da.

Zuen erabakia, gainera, ez da bat batean hartutakoa.

Guk honekin bi edo hiru urte eman ditugu. Oso ondo pentsatu dugu zer egin; lokal berri batera joan edo hemen geratu eta daukaguna de-fendatzea eta lokala handitzea.

Eta lokala handitzen hasi zarete...

Ez baita lokal berria bakarrik, espi-ritu bat, lan egiteko era bat, pentsa-tzeko era bat... da. Ez dute fisikoki eraikin bat hilko, pentsaeraz, ilu-sioz... betetako proiektu bat hilko dute. Baina guzti honek, zoritxa-rrez, ez dauka prezio bat, ez da di-rua, beraientzako ez dauka balio-rik.

Zer da beraz, negoziaketak buka-tu diren honetan, udal-txeari es-ka-tzen diozuen?

Horrenbeste urtetan horrenbeste jende hemean lan eginda, udale-txeak guk izan nahi duguna erres-petatzea eskatzen dugu.

Handitzearekin kolektibo gehia-

» **KALEJIRA**

Etzi, larunbata

■ **11:00.** Trianguloa plazatik abia-tuko da Pirritx eta Porrotx Bonbe-roen Kalejira.

■ **18:00.** Gernikako Arbolaren bi-degurutetik aterako da kalejira: karroza egongo da Laket eta Atila y los Unos taldeekin, afrikar dan-tzen emanaldia izango da, Bonbe-renea Txaranga eta Lagunak, Ge-roarte dultzaina taldea, Tolosako dultzaineroak, May Gorostiaga, Mulambo...

Ibilbidea hau izango da: Gernikako

Arbolaren bidegurutetik, Trian-guloa plazara, handik Gorosabel kaletik behera joango dira, Gorriti plazatik gora joango dira eta Ko-rreo kalean sartu, eta handik Sola-na kaletik, plaza Zaharrera -Udale-txeako plaza- joango dira. Udaletxe parean erraldoiek dantza egingo dute, Bonberenea Txaranga pie-za batzuk joko ditu, Atila y los Unos taldekoek kantu bat joko dute eta idatzi bat ere irakurriko dute. Kalejira ixteko Bonberenea kantua entzun ahal izango da.

gori egin diezue tokia Bonberene-an, ezta?

Hori da, handitzea ez baitzen Bon-berorentzako, baizik eta herriko beste kolektibo batzuek ere lekua behar zutelako; erraldoiak, Mu-lambok... Oraindik ez dugu pabi-loia bukatu, baina bukatzerakoan rock taldeek entseatzeko tokia izango dute, Mulambok ere izango du bere tokia, dantza afrikarreko-ek ere... Denak nukleo baten ingu-ruan elkartzea da gure naha.

Zer da abiarazi duzen kanpaina honekin lortu nahi duzuen?

Batetik, atxikimenduak lortu nahi ditugu, bai Tolosa mailan eta baita Euskal Herria mailan ere; Bonbe-renea zer den jakitera eraman nahi dugu. Udaletxeko alderdiek hau zer den, zein gauza egiten diren eta herrian duen onarpenaren berri izatea ere nahi dugu. Atxikimen-duak emateko aukera orain aste bete edo jarri genuen eta jada 500 atxikimendutik gora jaso ditugu. Animatzen den guz-tiari egiten diogu dei atxikimen-dua gure webgunean uztera (www.bonberena.com). Orain arte atxikitu diren guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu.

Kanpaina oraintxe abiarazita goiz xamar bada ere, balakoiren batean Bonberenea Sutan-en pankarta ikusi dut.

Bai gure asmoa hori da, nahi due-nak etxetik ere aldarrikapena egi-tea. Animatzen denak Bonberene-ako edozeini eskatuta edota hona bertara etorrita eskuratu ahal izan-go dugu.

Dena den, gatazka hau kaleratze-ko garaian berebiziko garrantziko izango du etzi, larunbatean, egin-go duzen kalejirak. Nola progra-matu duzue kalejira?

11:00etan hasiko gara Trianguloa plazatik. Pirritx eta Porrotxen Bonberoen Kalejira egingo dugu lehenik eta behin, eta esan behar dugu Pirritx eta Porrotx azken ur-teetan ez direla batera atera, eta la-runbatean elkartuko direla urte bete eta gero. Udaletxeari ere jaki-naraziko diete ez dutela 'beren etxea' botatzerik nahi. Bonbere-nea Txaranga ere ariko da. Kaleji-rak arratsaldean jarraituko du. 18:00etan Atila y los Unos eta La-ket taldeak aterako dira karroza baten gainean kalejiran, eta baita Bonberenea Txaranga eta Lagu-nak -txaranga ezberdinetakoa- lagu-nak-gurasoak, haurrak... ere. Kale-jira irekia izango da eta gauza asko izango dira; buruhandiak eta erral-doiak, Mulambo, afrikar dantzeta-ko tailerreko dantzariak, dultzai-neroak, May Gorostiagak ere sketch- a ere egingo du... Jende asko bilduko gara kalean.

Irailean Bonberenea Sutan jaial-dia ere ospatuko duzue, berriz ere.

Bai, horretan ere ari gara lanean. Irailearen 10 eta 11n izango da jaial-dia eta beste batzuen artean Anari, Ama Say eta Athom Rumba izango dira.



SUAK ERRE AURREKOAK

Aurtengo Tolosako Sanjoanetako suzirik Joseba Rojo eskizizaleak piztu du. TERRAZILLOS

San Joan jaiek ▶ Atzo arratsaldean hasi ziren herriko jaiek suzirik botatzearekin batera; gauetan, San Joan suak hartu zuen protagonismoa.

ASER IMAZ: INIGOTERRAZILLOS

Legenda edo tradizioaren arabera, atzoko egunaz hiru akatiz egin behar da salto suaren gainetik. Herriko egien duenak gaitzak umen-ko omen dituzte, eta urte on bat izango du aurretik. Bada, hori aintzat hartuta, ala ohitura delako heritar ugari eutsi nahi izan ziot atzokian ere tradizioari. Arratsaldean hasitako festari jarraitpena emanez, San Joan suaren inguruan jai giro politoa sortu zen Santa Maria plazan. Suaren berotasunak ez ezik, Udaltzerri dantza taldearen emandak eta Musika Bandaren

eta Tolosako Orfeoiaeren dotinauk lagundu zuten horietan. Festak jarraitu egin zuten goizaldera arte, baina, urteko gauek motzena izaki, aste baino lehenago iritsi zen San Joan egunaren argia. Jende ugari arratsaldean elkartu zen Plaza Zaharrean, bertan, bota batzuetan, ohiko legez, herriko jaiak hasiera ematen dion suzirik. Ondoan hasi zen festa, eta une hori giro onuz, erraldioak eta buruhandak kalejiran abiatu ziren Tolosako dultzainerekin batera Aida Zaharrean abiar. Bertsok hartu zuten gero leku-

koa, eta Udaltzarak, tradizioari men, Arrameleko San Joan kapariko otzinean hartu zuen parte. Musika Ikidjo Larritago Alondoi Orkestraren eta Switch eta Seiren taldeen eskutik iritsi zen.

Jaietako egun handiena
Jaietako egunik bereziena eta tradiziozkoena izango da gaueko San Joan eguna. Egun osan zehar ekitaldi ugari izango dira, baina horietatik, eskopetarien desfileak eta deskargak, San Joan alardea, bordonantzariak eta erraldioekin, txirri indulari proba eta batel estropak dira, su festak edota Euskal Herria plazako gaueko kontzertua nabarmendu daitezke. Hestak festa, Festarako gogoz dagoenak, bezaz, ez du atzakiarik.

GAURKO EGITARAUA

- **07:00.** Aikate Soinua Tolosako Txistulari Bandaren eskutik.
- **08:30.** Diana, Tolosako Musika Bandarenekin.
- **08:45.** Diana, Tolosako eta Iurriko txistulari bandekin.
- **09:00.** Diana, Giro Arte dultzaino taldearekin.
- **09:00.** Txirri indulariak (iriteara): 1. eta 2. mailako afizionatuen proba, XXXVII Jose M. Anza Memoriala, Oñako Txirri indulari Eskola antolatuta.
- **09:30.** Plaza Zaharrean Eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea eta ondoren, San Joan Alardea, Udaltzarak Berdura Plazan.
- **16:45.** Udaltzarak, Tolosako Musika Banda, txistulari, bordonantzari eta eskopetariak Plaza Zaharrean abiatuko dira, Andie Maria eliza nagusiko bezperetar jaietako. Ondoren, Arrameleko San Joan kaparri izango diren arrats otzizetan parte hartuko dute. Ondoren, Udaltzarak, bordonantzari, txistulariak, Musika Banda eta eskopetariak konpainiak Triangeluan bildu eta azken deskargak egingo dituzte, eta chiburriko aurreko dantzak bilduko da.
- **19:30 eta 23:30.** Jones Brothers boranga kalez kale ibiliko da.
- **23:00.** Su festak, 1. bilduma: Pirretaria Zangozua.
- **23:30.** Euskal Herria plazan kontzertua: Ili Aiye (auria eginez goero, Leidorren).

perak parte hartuko du. Ondoren, prozesioa, Udaltzarak, kofradia, bordonantzariak eta erraldioekin, elkarteetako eskopetariak ondoren antzoko salbak botako dituzte betiko tokietan. Elkizunen ostean, eskopetari konpainiak Euskal Herria plazan bilduko dira berriro, bertan izan dezagatik egiteko.

IRUDI
ileapaindegia
Eskolapietako lorategia 1
Tfno.: 943 674 526
TOLOSA

Ondo pasa SANJUAN jaiek

Geitoki
Eskolapietako lorategia 1
Tfno.: 943 674 526
TOLOSA

- Akupuntura
- Terapia eskuz
- Errehabilitazioa
- Gernu inkontinentzia
- Kirol masajea eta terapeutikoa
- Erditze aurreko prestaketa eta ondorengo tratamendua

Tel.: 943 249 692
Batzilerr Zelidila 12. behean
"Tolosako tren geltokian ondoan"



Turiziz Jubilatuta eta Pensionisten Elkarteak Mus Txapelketa jokatuta zuten. A. IMAZ



Buruhandak bikiniaren atzetik ibili ziren arratsaldean. A. IMAZ



Udal korporazioa Arrameleko ermitara joan zen ohitura jarraituz. A. IMAZ



Zerkusian, 150 lagun inguruk bertsoarien aldeko aukera egin zuten. A. IMAZ

San Juanak. Zure jaiek. Gure jaiek.

kutxa
inguruko laguntza

Iritsi da hirugarren gida turistikoa

Aldaba » Tolosako landa eremuetako auzoak ezagutarazi eta berpiztea da gida liburuaren xede nagusia.

ERREDAKZIOA

Txindoki parez-pare duen auzoak, badu bere gida turistikoa. Beldaiok eta Urkizuk irekitako bideari jarraituz, Tolosako landa eremuetako hirugarren gida turistikoa da hau. Tolosako Udalak eta Tolosaldea Tourrek bultzatu dute proiektua.

Argitaratu berri den liburuxkan, Aldaba auzoko historia, argazkiak, ibilbideak eta datu interesgarriak biltzen dira. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako testuek laburtzen dute Aldabak eskaintzen duena.

Baselizaren inguruan eraiki ziren etxeek osatzen dute, auzoaren erdigunea. Mikel Goiangeruaren baseliza oso ezaguna da. Bertan, eskualdeko bikote askok bizitza



Aldabako gidaren azala. HITZA

guztirako maitasunari zinegin baidote, Aralarko ikuspegi zoragarriari begira.

1953an auzoan egondako lur mugimenduek, baselizan eta inguruko etxeetan eragin zuten. 1962an berreraiki zen gaur egun ezagutzen dugun itxura modernoko baseliza.

Errepidea ere berria dela gogorazten du gidak, 60 urte besterik ez baitira Alegia eta Aldaba lotzen dituen errepidea egin zela.

Landaretzari buruzko informazioa ere eskaintzen du liburuxkak. Albizturko mugatik gertu dauden altuera eta zabalera handiko izeiak bisitatzea gomendatuz.

Mendi ibilaldia eta produktu naturalak

Ingurune menditsuan kokatuta dagoen auzoak, mendi ibilaldi eder bat egiteko proposamena ere egiten du. Eliza ondoko mendi bidean oinez hasi eta PR-GI 74 bideari jarraituz, Lopetegi eta Aldabazahar baserrien ondotik igarotzen da bidea. Albizturkin muga egiten duten mendiak ere zeharkatzen ditu, 3 ordu inguruko txangoak.

Produktu biologikoak ekoizten dituen Aldabazahar elkarteak, bertatik bertara ezagutzeko aukera ere ematen du gidak. Bisitariak baserriera bertara joan daitezten gomendatuz.

Gida honek, bertakoek eta kanpotarrek Aldaba ezagutu eta auzora hurbiltzea du helburu. Landa eremuko auzoak eta herriak berpiztea baita azken batean proiektu honen xedea.

Interesatuak, Tolosako turismo bulegoan aurkituko dute gida liburuak.

Laburrak

Jubilatuentzako bidaia Ipar Euskal Herrira

AMEZKETA • 60 urtetik gorako amezketarrek, uztailearen 4an Ipar Euskal Herria bisitatzeko aukera izango dute. 08:15ean aterako da autobusa herritik: Ergone, Auzoetxe eta Ugartetik pasa eta gero, autobusak iparralderako norabidea hartuko du. Biarritz eta Hossegor bisitatuko dituzte goizean. Bazkaria Ibardinen egingo dute, Beola jatekxan. Arratsaldean Sokoia eta Donibane Lohitzune herrietara joango dira. Bertan meriendatu ostenen, 21:00etarako Amezketan izango dira. Udalak herriko jubilatuak gonbidatzen ditu egun pasa eder hau egitera. Interesatuak, hilaren 30a baino lehen izena eman behar dute udaltekxan. Txartelaren prezioa 27 eurokoa da.

Leitza inguruak ezagutzeko mendi ibilaldia

LEITZA • Mendibil mendi taldeak ibilaldia antolatuko du Mendaurrera, uztailearen 26rako, larunbaterako. Goizeko zortzietan aterako dira plazatik. Ibilbidea hauxe izango da: Perraleku-Iruñarri-Loitzate-Ekaitza-Menbieder-Mendaurre eta Aurtitz. Izen emateko azken eguna gaur da, interesatuak mendibilaurrera@hotmail.com helbidera idatzi behar dute edota, Astiz edo Maimurrera hurbildu.

Alkoholiko Anonimoen bilera irekia hilaren 29an

TOLOSA • Alkoholak, honen ondorioak, kalteak eta errekupeazioaren inguruan hitz egingo dute datorren asteartean. Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak antolatuko du bilera irekia. Elkartekoek, alkoholak kalteturikoak, beren senideak eta informazio gehiago nahi duen jendea gonbidatzeko dituzte, Corpus Christi parrokiako lokaletan, 20:00etan egingo den bilera parte hartzera.

Gorritzaran egunerako dena prest

Leitza » Igandea ekitaldiz bete dator Basakabiko kaskoan. XXIII. Txintxurrin Txapelketa ezaguna egingo da urtero legez.

ERREDAKZIOA

Duela 50 urte inguru, lagun artean antolatutako festa, ohitura bihurtu dute Gorritzaran auzoek. Urtero, San Joan eta San Pedro bitartean, Basakabi ondoko zelaietan bada zerikusi eta gozatua. Goizean emango diote hasiera festari, 10:00etan herri kirolak eta sokatira izango dira. Ondoren umeen-

tzako jolasak egingo dira. 14:00etan bazkariaren txanda izango da. Txartelak Basakabin bertan izango dira salgai egunean bertan. Helduenak 40 eurotan eta gazteenak 15 eurotan.

Arratsaldeko txanda, Mus Txapelketak irekiko du, 17:00etan. Kartetan bikoteek, beren abileziak erakutsi ondoren, 20:00ak aldera Leitza ezaguna den XXII. Txintxurrin Txapelketa egingo da. Beso baten gainean etzan eta bestearekin txanpona hartzen saiatuko dira. Zozketak eta txokolatadak emango dio amaiera festari. Egun guztian zehar trikitixa doinuek alaituko dutelarik festa.



Urtero herri kirolekin ematen zaio hasiera festari. MADDI SOROA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

HITZAk Gipuzkoan **120.000** irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Portalet gainetik txirrindulariak guztiz bustita eta hoztuta igaro ziren. Ikusleek ez zuten hutsik egin. HITZA

Quebrantahuesos proba eguraldi txarrak gogortua

Txirrindularitza » 11.000 txirrindularietatik, 7.519 iritsi ziren helmugara. Eguraldi txarrak proba zaildu zuen.

egin behar izaten dute, Sabiñanigotik irten eta bertan bukatzeko. Aurten, 11.000 txirrindulari zeuden izena emanda. Horietatik, 7.519 txirrindulari baino ez ziren iritsi helmugara. Nahiz eta batzuk ez ziren atera, irrendako askok lasterketa utzi egin zuten.

jarri eta 07:30ean irteera noiz emango zain ziren guztiak. Sabiñanigon eguraldiak aitzakiarik ez bazuen ere, Marie-Blanche, Portalet edota Aubisque portuetatik igarotzea ez zen samurra izan. Ikusleek ere ederki sufritu behar izan zuten. Bide ertzean egoteko, haizea, euria eta hotza izan zituzten.

Ekualdeko lehena, Abraham Olano txirrindulari ohia izan zen. Hamabosgarren sailkatu zen, 5:36:40ko denbora ginez.

ERREDAKZIOA

Urtero legez, larunbatean Quebrantahuesos lasterketa ospatu zen Sabiñanigon. XX. edizioa zuen izen handiko txirrindulari probak. Guztira 205 kilometroko ibilbidea

Eguraldia «oso txarra»

Goizeko 05:30etarako hasi zen auto eta furgoneten joan-etorria. Aparkatu, bizikletak prestatu, biderako jan-edanak hartu, kaskoa

» QUEBRANTAHUESOS 2010: ESKUALDEKO PARTE HARTZAILEAK

■ **Aginaga, Jose Karlos (Tolosa)** 2.077 / 7:17:09
 ■ **Aldalur, Mikel (Tolosa)** 5.112 / 10:31:07
 ■ **Alvarez, Ander (Tolosa)** 4.586 / 9:15:34
 ■ **Aljostes, Iñaki (Anoeta)** 2.648 / 7:40:04
 ■ **Aparicio, Guillermo (Tolosa)** 3.931 / 8:36:57
 ■ **Aranzabe, Jose Angel (Villabona)** 2.874 / 7:48:48
 ■ **Arretxe, Joseba (Villabona)** 276 / 6:10:05
 ■ **Arribillaga, Jose Ramon (Leizta)** 888 / 6:38:44
 ■ **Arruabarrena, Eduardo (Zizurkil)** 356 / 6:14:50
 ■ **Baños, Jose Mari (Tolosa)** 4.683 / 9:23:15
 ■ **Cabeza, Juan Carlos (Ibarra)** 3.609 / 8:21:57
 ■ **Descalzo, Carlos (Anoeta)** 4.121 / 8:44:15
 ■ **Elizalde, Mikel (Tolosa)** 2.536 / 7:35:17
 ■ **Elustondo, Antonio (Tolosa)** 3.495 / 8:12:15
 ■ **Ermina, Jose Miguel (Amezketta)** 108 / 5:55:46
 ■ **Errondosoro, Joseba (Leaburu)** 150 / 6:12:22
 ■ **Errondosoro, Mikel (Leaburu)** 149 / 6:12:13

■ **Estensoro, Jon (Tolosa)** 312 / 6:10:34
 ■ **Galarraga, Iban (Amezketta)** 4.553 / 9:12:37
 ■ **Garmendia, Jesus Mari (Ikaztegieta)** 2.131 / 7:22:00
 ■ **Gil, Juan Luis (Tolosa)** 248 / 6:07:14
 ■ **Goikoetxea, Manu (Ibarra)** 4.647 / 9:23:00
 ■ **Goikoetxeandia, Arkaitz (Ibarra)** 610 / 6:27:27
 ■ **Goitia, Jon (Belauntza)** 1.411 / 6:57:43
 ■ **Gorostegi, Joseba (Amezketta)** 4.554 / 9:12:50
 ■ **Gurrutxaga, Mikel (Orendain)** 813 / 6:37:04
 ■ **Gurrutxaga, Oskarbi (Tolosa)** 813 / 6:18:51
 ■ **Huarte, Mikel (Tolosa)** 4.673 / 9:21:03
 ■ **Ibarbia, Garikoitz (Irura)** 1.004 / 6:43:41
 ■ **Iraola, Jose Antonio (Tolosa)** 1.194 / 6:46:23
 ■ **Irastorza, Unai (Asteasu)** 606 / 6:46:23
 ■ **Irazustabarrena, Jon (Tolosa)** 547 / 6:25:12
 ■ **Lertxundi, Hur (Irura)** 4.242 / 8:54:30
 ■ **Luluaga, Aitor (Tolosa)** 701 / 6:29:01

■ **Luzuriaga, Juan Manuel (Tolosa)** 4.639 / 9:18:30
 ■ **Maiz Igor (Ikaztegieta)** 1.293 / 7:23:56
 ■ **Martin, Alfonso (Tolosa)** 2.591 / 7:39:08
 ■ **Medrano, Alberto (Tolosa)** 1.068 / 6:45:45
 ■ **Oñate, Ibon (Anoeta)** 1.737 / 7:10:28
 ■ **Olano, Abraham (Tolosa)** 15 / 5:36:40
 ■ **Peña, Miguel Angel (Villabona)** 3.512 / 8:20:33
 ■ **Romero, Raul (Ibarra)** 2.544 / 7:39:05
 ■ **Royo, Aitor (Villabona)** 483 / 6:19:46
 ■ **Sagasti, Iban (Albiztur)** 1.593 / 7:04:08
 ■ **Saizar, Txemi (Tolosa)** 85 / 5:53:15
 ■ **Sorarrain, Jose Miguel (Tolosa)** 3.335 / 8:07:12
 ■ **Uranga, Juan (Tolosa)** 1.207 / 6:51:50
 ■ **Usabiaga, Haritz (Villabona)** 275 / 6:10:07
 ■ **Zabala, Javier (Tolosa)** 5.054 / 10:22:01
 ■ **Zubelzu, Eugenio (Ibarra)** 637 / 6:28:36
 ■ **Zufiria, Ricardo (Tolosa)** 1.179 / 6:49:12

Infantil mailako Udako Futbol Campusean izena emateko aukera zabalik

Futbola » Lau astetan banatuta, uztaila eta abuztuan izango da. Izena emateko azken eguna hilaren 27a igandea da.

egunetan Zizurkilgo futbol zelaian ariko dira.

Uztailaren 26tik aurrera

Lehen astea, uztailaren 26tik, 30era izango da. Bigarren astea, abuztuaren 2tik 6era, hirugarrena, abuztuaren 9tik 13ra izango da eta azkena, abuztuaren 16tik 20ra izango da.

Ekainaren 27a baino lehen izena emanaz gero, aste bat 30 euro, bi aste 50 euro, 3 aste 70 euro eta lau asteak 90 euro ordaindu beharko dira. Ekainaren 27 pasa ondoren izena emanaz gero berriz, aste bat 40 euro, bi aste 60 euro, hiru aste 80 euro eta lau asteak, 100 euro ordaindu beharko dira.

Tolosara joateko autobusa eta Usabalgo sarrera, prezioaren barne daude. Izena Zizurkilgo Aurre-ra Plazako Udal Bulegoan eta Asteasuko Kiroldegian eman behar da. Informazio gehiago: 943-696388 edo 649-685952 telefonotan eskuratu daiteke.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Danena Kirol Elkarteak udako futbol campusa antolatuko du uztaila eta abuztuan. 1997. urtetik 2004. urte bitartean jaiotako neska mutilen zuzendua dago batik bat. Datorren denboraldira talde bat sortzeko oinarri izango da.

Campusa euskaraz izango da eta lau astetan banatuko da. Aste bakoitzean, astelehenean ostiralean 09:30etik 13:30era izango dira, asteazkenean izan ezik. Egun honetan Tolosako Usabal kiroldegian burutuko da jardura (futbol zelaia, igerilekuak eta beste instalazioak erabiltzeko aukerarekin) eta 14:45ean bukatuko da. Beste



AEK-ko ikasleak eskulanetan

VILLABONA-ZIZURKIL » Villabona eta Zizurkilgo AEK euskaltegiko ikasleek eskulan tailerra burutu dute Villabonako Kultur Etxean. Bertan, bi herrietako ikasle eta irakasleek hartu zuten parte. Irakasle baten gidaritzapean bi eskulan egiteko aukera izan zuten: hautsontziak edota klipak gordetzeko ontziak egin zituzten. Soka eta osagai ezberdinekin giltzak gordetzeko ere egin zituzten. Modu honetara, ikasleek euren arteko harremana sakondu eta euskara erabiltzeko aukera paregabea izan zuten. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



23°
14°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 25°
HOTZENA 17°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

San Joan eguna

■ **Abaltzisketa.** 11:00etan meza nagusia; jarraian herriko gazteen trikitixa saioa; bitartean jubila-tuentzat hamaiketako; 13:00ean VI.Toka txapelketa herriko plazan; 19:30ean triki bertso poteoa eta 22:30ean erromeria: TZ taldea.
■ **Belauntza.** Txistularien diana; 11:00etan meza nagusia, ondoren hamaiketako trikitilari eta Zebe-rio eta Mendizabal bertsoariekin; 17:00etan haur festa; 18:30ean toka txapelketa; ondoren herri ki-rol erakustaldia Ibarrako Sokatira Taldearen eskutik, eta ondoren herriarren arteko txapelketa.
■ **Tolosa.** 07:00etan Alkate Soi-nua Tolosako Txistulari Bandare-kin; 08:30ean diana Tolosako Mu-sika Bandarekin; 08:45ean diana Tolosako eta Iruñeko txistularie-kin; 09:00etan diana Giro Arte dultzaina taldearekin; 09:00etan 1. eta 2. mailako txirindulari afizio-natuen Jose M. Anza Memoriale; 09:30ean Plaza Zaharrean Esko-petariak eta Tolosako Musika Banda; diana, desfilea eta, ondo-ren, San Joan Alardea, 10:00etan meza nagusia Andre Maria parro-kiari; ondoren prozesioa eta esko-petariak Euskal Herria plazan bil-duko dira azken deskargak egite-ko; 11:45ean txirindulari probaren amaiera; 12:00etan batel estrop-a den finalak Oriain; 13:00etan Tolo-sako Musika Banda eta Tolosako eta Iruñeko txistulari banden kont-zertua Berdura Plazan; 16:45ean Udaltzua, Musika Banda, txistu-lari, bordondantzari eta eskopeta-riak Plaza Zaharretik abiatuko dira Andre Maria eliza nagusiko bez-peretara joateko; ondoren, Arra-meleko San Joan kaperan arrats otoitzetan parte hartuko dute; on-doren, Udaltzua, bordondantzari-ak, txistulariak, Musika Banda eta eskopetariak Trianguloan bilduko dira, azken deskargak egin eta ohi-turazko aurraskua dantzatu da; 19:30 eta 23:30ean Jones Brot-hers txaranga; 23:00etan su fes-tak; 23:30ean Euskal Herria plazan kontzertua: Ilê Aiyê.

» GUARDIAKOFARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal He-rria, 46. 943 67 32 74.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Na-gusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Bost kontinenteetako musika solstizioan

URKIZU ■ Aurtengo solstizio kontzertura bildutako entzuleek bost kontinenteetako musika entzuteko aukera izan zuten, herenegun Urkizun, Iralo-lako zuloa pagadian. Interpretak, Et Incarnatus orkestrako musikari-ak, Migel Zeberio tolosarraren zuzendaritzapean, inguruko txorien txo-rtzio inprobisatuen laguntzarekin. Txinako doinuaren exotikotasuna, Afrikako musika etnikoaren usaina, Ozeaniako maitasun kanta eta He-goamerikako aire beroak igo ziren pagoen adarretatik gora. Eta Europatik? Gertu ditugun Sanferminetako pieza alai eta ezagun batzuk. Entzule

ugari bildu zen eta txalo ugari jaso zuten musikariek. Obra batzuen estreinaldiak izan ziren, Juantxo Zeberio, Angel Unzu, Jose Manuel Urre-jolak eta Lerman Nievesek moldatutakoak adibidez. Bakarariak ere izan ziren: Urrejola bera flautarekin, Enrique Solinis gitararekin eta Nelson Reyes cuatro venezolarrarekin. Eta bukaeran, Iñaki Epelde tolosarren ar-telan batzuk zozketatu zituzten ikusleen artean. Urtero Et Incarnatus or-kestrak eskaintzen duen kontzertu berezi honen hamaikagarren edizioa izan zen. Azkena ez izatea espero dugu. JOXEMI SAIZAR

ELECTRICIDAD ELUSTONDO
GORA SANJUAN!
Iurre Auzoa, 4 • TOLOSA • Tel.: 943 67 23 00
Nafarroa etorb. 13 • Tel.: 943 88 95 71 • BEASAIN

itzulnet
AZKARTASUNA ETA KALITATEA
HIZKUNTZA KONBINAZIO UGARI ETA PREZIO LEHIAKORRAK
BEHERAPENAK BOLUMEN ETA MAIZTASUNARENGATIK
San Frantzisko 11, Tolosa
www.itzulnet.net

Laserra
Inplanteak
Hortz-zuritzea
Hiru dimentsiotako radiologia digitala
Geltoki kalea, 1 behea
20400 Tolosa
Cipuzkoa
Telf.: 943 249 882 aarbillaga.hortzklina@gmail.com

ALUSTIZIA
GORA SANJUAN!
Tel.: 943 672 248
670 420 380
-TOLOSA-
www.alustizapintores.com
info@alustizapintores.com